# EUSKADI



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

## Ezinbesteko 10ak

Asko dira Euskadi ezinbesteko jomuga bihurtzen duten arrazoiak.
Berehala konturatuko zara bertako jendea eta historia ezagutzen duzunean, hiriek arnasten duten ondarea ikustean, eta, harik eta hobeto, mahai on baten inguruan iruzkintzen duzunean.


Bilbao


Donostia


Vitoria-Gasteiz


Gernikako Batzar Etxea


Bizkaia Zubia


Gaztelugatxeko Doniene


Urdaibai


Balenciaga Museoa


Loiolako Santutegia


Guardia

www.euskadituri smoa.eus

**EUSKADI**
**BASQUE COUNTRY**

EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco



# ...iria

# ...uraren hiria

Balioak eta argudioak, guztiak ditu... Zerbaitegatik izendatu dute Donostia **"2016ko Europako Kultur Hiriburua"**...! Hemen, kultura bizitasun handiarekin bizi da... Bere adierazpen herrikoienetik eta jendetsuenetik –urtarrilaren 20ko **Danborrada**– hasita, ospe handiko **Zinemaldiraino eta Jazzaldiraino.** "Hiritarren energia-olatuak" esaldiarekin izendatu dute hori.









Catherine Deneuve, Glenn Close, Woody Allen... eta askoz gehiagok, euren begiekinikusidute.Jaialdizinematografiko bat izateaz haratago, Donostia berez zinema-plato handi bat da.

Zuzendari, aktore, espezialista eta kritiko askok, zazpigarren artearekiko sekulako zaletasuna garatu dute hirurogei urteetan, eta Donostiako bizitza eta jarduera guztian nabari daiteke. Hainbesteraino, non Turismo Bulegoan ibilbide gidatu bat antolatzen duten hiria zinemaren magiarekin ezagutzeko. Benetan merezi du **Bulebarrean, Kontxako** hondartzan, eta **eremu erromantikoan** barrena ibiltzeak... Zazpigarren arteak Gipuzkoako hiriburuaren airea nola betetzen duen ikusiko duzu: hor daude **Maria Kristina Hotela, Victoria Eugenia Antzokia** edo **Kursaal Jauregia.** Guztia da film batetik ateria bezala!

www.sansebastianfestival.com

2016ko Europako Kultur Hiriburuan kultura-arloko topaketak eta deialdiak etengabeak dira. Beste klasiko bat dugu **Nazioarteko Jazzaldia,** eta aipatzekoa da, era berean, **Musika Hamabostaldia.** Zinemak beste adierazpen batzuk ditu **Mendiko** edo **Urpekaritzako** zinemaldietan, eta **Fantasiazko Zinemaldian.** Era berean, nabarmentzekoa da **Surf Film Festival Jaialdia,** diziplina anitzeko lagin bat eskaintzen duena. **Arteleku** sormenera irekitako zentro bat da, betiere sormenaren arte-adierazpen guztietan. Eta zientzia gogoko baduzu, **Eureka! Zientzia Museoak** esperientzia berritzaileetan parte hartzera gonbidatzen du, eta astero berritzen ditu bere proposamen teknologikoak.

SAN SEBASTIAN
DONOSTIA 2016

Donostiak, 2016ko Europako Kultur Hiriburuak, kultura-politikaren kontzeptu berri batentzat beharrezkoak diren tresnak biltzen ditu. Auzoek kultura-arloko zentroak, tailerrak eta etxeak dituzte, ideien truke sortzailea eta gizarte-eraldaketa sustatuz.
2016ko Europako Kultur Hiriburuaren titulu esklusiboarekin lotutako ospakizunak, konbentzioak, ekitaldiak eta festak urte hauetan guztietan egingo dira.

www.sansebastian2016.eu

TOP ESPERIENTZIA

## Sagardoa eta itsasoa



Imajinatu bale-ehizaren abentura bizi dezakezula, eta itsasoak sagardoarekin duen harremana ezagutu, **"txotx"** hotsaren erritualaren inguruko gastronomia dastatuz. Horretarako **Sagardoetxea Euskal Sagardoaren Museoa** bisita dezakezu, ibilbide gidatu bat egin dezakezu **Kontxako** badian zehar, Donostian, eta **Aquariumean** sar zaitezke, eta horren tunel ozeanikoa ikusi. Sekulako gozamena.

www.viajesporeuskadi.es

